

Kide preziatuak:

Aurtengo irailean Donostian artisautza azoka antolatuko dugu eta haren berri bidaltzen dizuegu interesgarria izango zaizuelakoan.

## **IRAILEKO KULTUR EKINTZAK ARTISAU AZOKA**

**Kokalekua:** Alderdi Eder.

**Data:** Irailaren 1tik 12ra.

**Irekiera:** irailak 1, 16:30tan.

**Ordutegia:** 11:30tik 14:30ra eta 16:30tik 21:00ak arte.

Igandeak 16:30tik 21:00etara.

**Azpiegitura:** Melaminazko standak, pertsianarekin.

Stand bakoitzak korrante-hargunea izango du (gehieneko potentzia: 1.000 W).

Gauetan zaintza egongo da eta hedabideetan publizitatea egingo da.

*Standa eskatzeko **uztailaren 25a baino lehen** honako agiriak bidali beharko dira [feriaeuskaljaiak@lurkolektiboa.org](mailto:feriaeuskaljaiak@lurkolektiboa.org) helbide elektronikora:*

- Eskaera-orria, behar bezala beteta (webgunean zuzenean bete, paperean ez).
- Artisaua zarela egiaztatze frogagiria.
- Enpresaren IFZ eta standean egongo den tailerreko **artisauaren** NA.
- Autonomoen azken hiru ordainagiriak.
- Lantegiaren ibilbidea.
- Lanketa-tekniken azalpen laburra.
- Piezen gutxieneko prezioa eta batez bestekoa.
- Erakusgai egongo diren piezen 6 argazki, horietako bi stand osoarenak.
- Produktu kosmetikoen kasuan dagozkien osasun ziurtagiriak aurkeztu behar dira.

**Dokumenturen bat faltaz gero, eskaera ez da hautaketa-prozesuan aintzat hartuko eta baztertua izango da.**

**PREZIOA BEZ BARNE:**

3 x2 m-ko standa.....582,00 €

4x2 m-ko standa.....770,00 €

Aldameneko persiana eskatu daiteke, 125 euroko balioarekin. Aukera mugatua dago eta ezeztatua izan daiteke tailerren bati.

**PARTEARTZE BALDINTZAK:**

Standak LUR Kolektiboak ezarritako ordutegian irekita egon beharko dute eta arrazoi justifikatu batengatik izan ezean ezingo dira hutsik egon. Edonola ere, stand-a, arrazoi justifikatu batengatik hutsik utzi beharko balitz, alde zuzenetik jakinarazi beharko da. Standak tailerreko kide batek zaindua egon beharko du, behar bezala akreditaturik.

Erakusgai jarriko den materiala eskaeran aurkeztutakoarekin bat etorriko da. Hala izan ezean, Lur Kolektiboak bere gain hartzen du stand-a azokatik kendu edo eskaerarekin bat ez datozen piezak baztertzeko eskubidea.

Muntaketa bidez eginiko piezak ezingo dira salgai jarri ez eta artisauaren lantegian bertan sortu ez diren artikulatuak ere.

Bitxigintza eta urrengintzako standetan ezik mota horretako produktuak erakusgai jarri gero ezingo da inolaz ere erakusketaren % 20a gaintu.

Standa erabat garbi eta inongo kalterik gabe utzi beharko da; hartu denean bezalako baldintzetan itzuli beharko delarik.

Antolakuntzak ez du bere gain hartuko galduak, hondatuak edota lapurtutako objektuen ardura.

**Ezinbestekak bultzatuta azoka itxi beharko balitz, Lur kolektiboa ez du izango ixte horrek artisauei ekar diezazkiekeen galeren erantzukizunik.**

COVID-19ak eragindako ezohiko egoera dela eta, ezinbestekoa da azokan parte hartzen duten artisau guztiek momentuan indarrean dagoen osasun araudia betetzea.

Gutun hau jasotzeak ez du esan nahi azokarako hautatu zaitugunik. Ezinbestekoa da onarpenaren jakinarazpen gutuna jasotzea.

Argibiderik behar izanez gero, telefono-zenbaki hauetara deitu dezakezu: 649 77 46 79 (Marian 9:00etatik 13:00etara) eta 633 330 586 (Marta 16etatik 20etara), edo idatzi helbide honetara: lurkolektiboa@gmail.com

Agur bero bat jaso ezazue,

